

HAURREN IRAKURZALETASUNA SUSTATZEKO KANPAINA – 2018ko UDAZKENA

Santurtziko Udal Liburutegien Sareak haurren irakurzaletasuna sustatzeko kanpaina antolatzen du urtero “ipuinaren ordua” jardueraren bidez. Saioak arrakastatsu baino arrakastatsiagoak izaten dira, izan ere, 14 urtetik beherako publikoak harrera bikaina egiten dio.

Urte honetako kanpainak aurrekoetan egin ez den berrikuntza dakar, ipuinak eta sormen-jarduerak uztartuko dituenak: *Ipuinak eta sormen-tailerrak*. Saio horietan zuzeneko harremana jorratuko da umeekin eta bi modutan parte hartzeko aukera izango dute:

- Komunikazioan izango du ardatz, ipuinen ahozko narrazioaren bidez.
- Lan zuzena egingo da, sormen-tailer bat eginez.

“Apika” taldeak zenbait saio prestatu ditu adin-taldeen gustu, interes edota gaitasunak kontuan hartuz. Horrela bada, saio bakoitzean gai bat jorratuko da saio guztiak desberdinak eginez. Ezaugarri berezi horiek direla eta, jardueran 25 lagunek baino ezin izango dute parte hartu.

Egutegia:

- **Donibaneko Liburutegia**
Azaroaren 7an 18:00etan Gaztelaniaz
“De colores”: berdintasuna gure arteko desberdintasunean lantzen.
4 urtetik gorakoentzat
- **Kabieseseko Haur Liburutegia**
Azaroaren 14an 17:30ean Euskaraz
“Kexkak uxatzen”: belaunaldien arteko harremanak
6 urtetik gorakoentzat
- **Mahastietako Liburutegia**
Azaroaren 28an 17:30ean Euskaraz
“Nire zirkua”: autobalorazioa lantzen
6 urtetik gorakoentzat
- **Liburutegi Nagusia**
Abenduaren 26an 12:00etan Euskaraz
“Pujuy txoria”: errespetua eta justizia
5 urtetik gorakoentzat
- **Liburutegi Nagusia**
Abenduaren 27an 12:00etan Gaztelaniaz
“Imaginando”: irudimena nagusi
6 urtetik gorakoentzat
- **Liburutegi Nagusia**
Abenduaren 28an 12:00etan Euskaraz
“Nire liburua”: liburua, protagonista nagusia
5 urtetik gorakoentzat